



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko irailaren 10a

74. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ubarroiak eta lertxunek eragindako arazoak konpontzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Sunbillako tuneleko istripu- eta batez besteko zirkulazio-indizeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiek aziendaren aurka eginiko erasoek sortutako arazoak konpontzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, kirolaren babeserako 2,8 milioi euroko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko praktikan zer-nolako eragina izanen duen, adimen-gaixoen laguntzari dagokionez, adimen osasuna Laguntza Espezializatuaren alorrean sartzeak. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak neurriak hartzeko asmorik ote duen Cortes udalerriko biztanleek iturriko ura kontsumitu ahal izan dezaten haien osasuna arriskuan jarri gabe. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, eginen ez den Pirinioetako autobia eraikitzeko aurrekontu-esleipenari emandako xedeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako bazter-babesen zuzenketa integrala egiteko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Telefonía móviles España S.A. enpresak aurkeztu dituen kokapen eta mikrozelula berriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Errokariko enpresa-parkean, Burgin, lursailak erosteko aukera izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Deikazteluko industrialdean erosketa-aukera formalizatuak dituzten lursailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, zenbait udalerritan 2008an erosi nahi diren lursailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publikoaren ustiapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, zenbait industrialdetan eskuratutako lur-azalerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-411 errepidea, Ilarregi eta Auza artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Nafarroako toki entitateek hartutako akordio edo ebazpenei buruzkoa eta Toki Administrazioiko Departamentutik deuseztatzeko egindako eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, 11/2004 Foru Legearen eraginetik kanpo geratu diren idazkari eta kontu-hartzaile plazen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ubarroiek eta lertxunek eragindako arazoak konpontzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ubarroiek eta lertxunek eragindako arazoak konpontzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA


Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du lertxunen eta ubarroien arazoari buruz (PES 141/2008). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat ubarroi eta lertxun dago gaur egun? Eman datuak urteen arabera berezita.

Ubarroi handiak (*Phalacrocorax carbo*) gora egin zuen Nafarroan 90eko hamarkadako negu guztietan; Europan, orobat, hegazti horien hobia kopuruak ere gora egin zuen; hala ere, 2002. urte-tik hona, hegazti horrek kontrako joera hartu eta, gaur egun, beherako joera du argi eta garbi.

Honakoak dira Nafarroan eginiko kontaktak:

Urtea	Kop.
1989	7
1990	13
1991	20
1992	210
1993	325
1994	524
1995	271
1996	1237
1997	1211
1998	1410
1999	2110
2000	2244
2001	2337
2002	2706
2003	2102
2004	2389
2005	2214
2006	1229
2007	1242



Beraz, uneotan, ubarroiak, 2002tik hona, behe-ranzko joera nabarmena eta jarraitua du. Eskura dugun azkeneko kontaketa (2007) kopuru hauek ditu:

**Neguko kontaketa
(2007ko urtarrila)**


Kontaketa eginiko herriak	Kop.	Heldua	la heldua	Gaztea	Arrak	Emeak
Cadreita	321	132	21	28	89	21
Traslapuenteko ibar-basoak	160	83	18	12	68	12
Recajo	158	98	23	16	76	19
Esako urtegia	149	67	21	19	65	14
La Oliva monasterioa	119	72	19	18	54	10
Mendigorria	109	65	19	12	50	10
Lodosa	81	43	19	15	63	9
Etxauri	45	31	5	6	20	4
Galipentzu	35	25	4	3	21	7
Gileko ibar-basoak eta Ramalhondo	16	10	2	4	10	4
Pitillasko Aintzira	15	8	1	6	10	3
La Recueja ibar-basoa	21	12	5	4	15	4
Añarbeko urtegia	4					
Artikutzako urtegia	4					
Bidasoa ibaia	3	1	1	1		
Eugiko urtegia	2	1	1		2	
Kopurua	1242	648	159	144	543	117

Lertxunei buruz, Nafarroan bi espezie daude: lertxun hauskara (*Ardea cinerea*) eta lertxun gorria (*Ardea purpurea*). Kontaketa-aren datuak, kasu honetan, negukoak (N) eta udaberrikoak (U) dira.

	Lertxun hauskara		Lertxun gorria		Guztira	
	N	U	N	U	N	U
1989	90			96	90	96
1990	165	6		115	165	121
1991	220	17		137	220	154
1992	301	23		171	301	194
1993	432	28		190	432	218
1994	579	31		237	579	268
1995	56	157		116	56	273
1996	462	¿?		¿?	462	¿?
1997	667	¿?		¿?	667	¿?
1998	89	¿?		¿?	89	¿?
1999	772	176		189	772	365
2000	899	180		214	899	394
2001	1112	333		123	1112	456
2002	864	539		101	864	640
2003	1044	687		84	1044	771
2004	1226	386	1	87	1227	473
2005	1204	¿?		¿?	1204	¿?
2006	695	494		173	695	667
2007	616	457		129	616	586

Bi garai horietatik (negua eta udaberria), begi bistakoa da negua dela, a priori, garairik zailena arrain-faunarentzat, arrainek neguan erruten baituzte arrautzak, eta, beraz, eragina handiagoa

litzateke garai horretan. Lertxun hausgara da garai horretan gehien dagoena. Urtez urte izan duen bilakaeraren grafikoa honakoa da:



Hau da, badirudi lertxun hauskararen neguko populazioak ere 2004tik hona beherako joera duela.

Kokaguneari dagokionez, aipatu behar da lertxun hauskarak neguan, oro har, oso sakabanatuta egoten direla. 2007an, 616 lertxun hauskarak 107 herritan zeuden (nagusiki, aintziretan, hegoaldeko ibar-basoetan, arroz-soroetan... baina baita ibaetan ere).

Arrain-guneka berezita, 616 hegaztietatik 171k salmonido-guneetan igarotzen dute negua (% 27,76), eta gainerako 445ek, aldiz, (% 72,24) ziprindo-guneetan.

2.- Zer neurri proposatzen ditu departamentuak, aipatu animaliek eragindako arazoak konpontzeko?

a.- Espezieon legeko egoera:

Ubarroi handia:

Nahiz eta 2004. urtera arte espezie hau Espainiako katalogoan egon, urte horietatik aurrera (Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioaren 2784/2004 Agindua) katalogotik kanpo gelditu da. Edonola ere, Bernako Hitzarmenaren III. eranskinean jasota dago (Kontseiluaren 1981ko abenduaren 3ko 82/72/EEE Erabakia), eta Espainiak hitzarmen hori sinatu zuen; era berean, Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 79/409/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean ere jasota dago. Zuzentarau hori 92/43 Zuzentarauak hartu zuenez (Habitat naturalak eta basa fauna eta flora kon-

tserbatzeari buruzko Zuzentaraua), erreferentzia-espezie bat izatera pasa da Europako zuzentarau horien aplikaziorako eta Natura 2000 Sarerako, zeinak hegazti hori kontserbatu beharrekotzat jotzen baitu. Beraz, Espainian espezie hori katalogotik kanpo gelditu bada ere, nazioarteko hitzarmenek espeziea kontserbatzeko behar diren bermeak exijitzen dituzte, eta salbuespen kasu jakin batzuetarako baino ez dituzte gordetzen espeziea kontrolatzeko neurriak.

Lertxun hauskara eta lertxun gorria:

Espezie biak jasota daude bai Bernako Hitzarmeneko III. eranskinean, bai Hegaztietari buruzko Zuzentarauan (79/409). Gainera, biak ere Espainiako zein Nafarroako espezie babestuen Katalogoan daude. Beraz, gaiari buruzko Europako zuzentarauetz gain, arauok ere aplikatzekoak zaizkie bi espezie horiei:

- Lertxun hauskara: "interes berezikotzat" dago sailkatuta bai foru dekretuz (563/1995 Foru Dekretua) bai errege dekretuz (139/1990 Errege Dekretua).

- Lertxun gorria: "habitataren aldaketak eragin diezaiokeen espezieztat" jotzen du Nafarroako Gobernuaren 563/1995 Foru Dekretuak (foru dekretu horrek basa faunako zenbait ornodunen espezie eta azpiespezie arriskuan dauden espezieen Nafarroako katalogoan sartu zituen) eta 139/1990 Errege Dekretuak, berriz, espezie "kalteberatzat" jotzen du.

b.- Problemaren azterketa. Eragin posiblearen zenbatespena. Populazioaren kontrolerako justifikazioa, beharrezkoa baita legediaren arabera.

Ubarroi handia Nafarroan negua igarotzen duen espezie bat da, nahiz eta, kasu bakanen batean, Ebro ibaian ere ugaltu den. Bakar batzuk bereiz ibiltzen badira ere, espezie horrek taldeetan biltzeko joera izan ohi du neguan eta, horregatik, loleketan eginiko kontaktak oso eraginkorrak dira populazio osoa zein den jakiteko, loleku horie-

tan biltzen baitira neguan izaten diren ubarroi ia gehienak.

Adierazi denez, 2007an, 1.242 ubarroik igaro zuten negua Nafarroan, eginiko kontaktaren arabera. Hala ere, eta aztergai dugun problema dela-eta, interesgarria da aztertzea nola zeuden banatuta hegazti horiek, jakiteko zenbatekoa den hegaztiok salmonidoengan izan dezaketen eragina. Ikusi denez, hegazti gehienak salmonidoei kalte gutxi egin diezaieketen leketan daude.

2007ko kontaktaren emaitza		
arroaren arabera	kop.	%
Mediterraneoak	1231	%99,1
Atlantikoak	11	%0,9
eremuaren arabera	kop.	%
Salmonidoentzako goi mailako eremua	13	%1,0
Salmonidoentzako eremu mistoa	149	%12,0
Ziprinidoen eremua	1080	%87,0
GUZTIRA	1242	

Azterketa horrek erakusten du salmonidoentzako goi mailako eremuetan horrelako hegazti gutxi dagoela eta espezieak eragin txikia duela eremu horietan; salmonidoentzako eremu mistoan ere horrelako hegazti gutxi ageri da. Alde mistoan kontatutako gehienak, gainera, Esako urtegian zeuden, han elikatzen baitira nagusiki.

Bestalde, espazioaren erabilerari dagokionez, ubarroiak, ugalketa-garaian, batez beste, $3,8 \pm 1,5$ km mugitzen dira. Neguan zenbateraino mugitzen diren ez badakigu ere, pentsa daiteke batez bestekoa ez dela askoz handiagoa izanen, eta, beraz, ondoriozta dezakegu hartzen duten gunea ez dela handia.

Jaten dutenari buruz, aipatu behar da ubarroi harrapari ez-selektiboa dela, hau da, dagoen lekuko espezierik gehienak jaten ditu. Salmonidoak ugari diren leketan arrain horiek jateko gauza bada ere, arrain mota oro jaten du, eta biomasa iktikola gehien non den, hara joaten da. Neurri jakin bateko arrainak nahiago dituenik ere ez da ikusi; biomasa ugaria izanez gero, egokitu eta era eta tamaina guztietako arrainak janen ditu. Horregatik da Nafarroan askoz ere ugariagoa hegoaldean.

Lertxunei dagokionez, horiek ere espezie oportunistak dira, eta, mota askotako arrainez gain, batrazioak ere jaten dituzte, eta are hegazti akuatikoen habietatik harrapatzen dituzten txitak ere. Gorago adierazi denez, kontatutako 616 hegazti-tatik 171k salmonido-guneetan igarotzen dute

negua (% 27,76), eta gainerako 445ek, aldiz, (% 72,24) ziprinido-guneetan.

Esan dezakegu, beraz, ubarroiak eta lertxunak, neguan, gutxiago direla salmonidoentzako goi mailako eremuan eta salmonidoentzako eremu mistoan ziprinido-guneetan baino. Ibiltzeko hartzen duten gunea ez da seguruenik oso handia izanen eta, gehienbat, lolekuen inguruan ibiltzen dira; lolekuak urriak dira salmonido-guneetan. Jaten dutenaren espezifikotasun eza dela-eta, bereziki arrainen neguko fisonomiari dagokionez, pentsatu behar dugu, hasiera batean, hegazti horiek eragin txikia dutela, bereziki salmonidoentzako goi mailako eremuetan, eta, beraz, populazioaren kontrola ez dagoela justifikatuta.

Horri gehitu behar zaio, gainera, espezie horien populazioek beheranzko joera dutela azken urte hauetan; 2007an, horrela, 2004an kontatutako lertxunen eta ubarroi erdiak kontaktu dira.

Ondorio orokor hori gorabehera, salbuespenen bat izan daiteke; hau da, bada agian, leku jakin batzuetan (ibaiburuak eta arrautzak erruteko guneak), indibiduoren baten jokabide isolaturen bat; hori berariaz aztertu beharko da, baina ez da modu orokorrean jardun beharko, baizik eta ekin-tza zehatzen bat egin beharko da, aurrerago esan-n dugunez.

c) Kudeaketarako proposatutako neurriak

Espezie horiek arrantzan eragin ditzaketen problemak, a priori, urriak dira (non eta azterlan berri-

ek gaur ez dakizkigun gauzak ez dituzten azalera-tzen), eta ez dira nahikoa legeak espezie horientzat jasotako ezohiko neurri orokorrak justifikatzeko.

Gainera, Europako zein Espainiako beste lurralde batzuetan izandako kontrol-esperientziek erakusten dutenez, kontrol horiek ez dute ia batere arrakastarik izan arrain populazioaren hazkunderari dagokionez; bakarrik balio izan dute eragina modu oso puntualean eta kasu zehatzetan gutxitzeko.

Ez da ahaztu behar, adibidez, lolekuetan eginitako ekintzak –hori da eskatu ohi dena, hain zuzen– ez direla gomendagarriak; izan ere, hegaztiak sakabanatu egiten dira eta horiek hartzen duten eremua, eta, beraz, eragin orokorra, handitu egiten dira.

Ez dirudi egokiena denik, beraz, beste erkidego batzuetan hartu diren kontrol neurriak planteatzea, ez gutxienez hegazti horiek salmonidoengan duten eragina gutxitzeko, nahiz eta neurriok balio izan duten, agian, arrantzaleek administrazioei egiten zieten presioa arintzeko.

Aurrekoaren ondorioz, neurriok izan behar dira kontuan, eta hori egiten ari da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua:

a) Espezieok salmonidoengan puntu eta garai zehatzetan izan dezaketen benetako eraginaren ikerketan sakondu.

b) Ekintza bakanak eta puntualak, baimen kontrolatuaren bidez, bereziki problematikoak diren puntuetan bizi diren indibiduoak uxatzera bideratuak; puntu problematikoak izan daitezke, esaterako, salmonidoek arrainen gehiengo osatzen duten guneak, bai kopuruari dagokionez eta bai, bereziki, guztizko biomasari dagokionez, edo arrautzak erruteko guneak, baldin eta horietan salmonidoek ihes egiteko aukera gutxi badituzte, edo ubarroiak etengabe dauden ibai zatiak.

Horrela, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak apirilaren 18ko 803/2008 Ebazpena eman zuen, zeinaren bitartez baimena eman zitzaion Lizarrako Kirol Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteari Ega ibaitik ubarroiak uxatzeko; era berean, 804/2008 Ebazpena ere eman zuen, zeinaren bitartez Arga Ibaia Kirol Arrantzaleen Klubari baimena eman zitzaion ubarroiak uxatzeko Arga ibaitik eta Eugiko urtegitik eta inguruetatik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 13an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Sunbillako tuneleko istripu- eta batez besteko zirkulazio-indizeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Koldo Amezketa Díaz jaunak galdera egin du Sunbillako tuneleko istripu- eta batez besteko zirkulazio-indizeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak galdera egin du Sunbillako tuneleko ezbeharrei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Hona Doneztebetik N-121-A erreperidera iparraldeko norabidean sartzeko gunetik Lakarraizko tuneleko irteerara bitarteko tartean izandako ezbeharrei eta egune-roko batez besteko ibilgailu-kopurari buruzko datuak, azken hamar urteotan:

1998-2007 aldian							
Tartearen luzera		7,700					
Urtea	Istripu-kopurua	Istripu-kopurua kaltetuekin	Hildakoak	Zauritu larriak	Zauritu arinak	Arrisku-indizea (AI)	Batez besteko ibilgailuak eguneko
1998	23	7	0	7	4	64,68	3.851
1999	16	7	1	3	5	62,41	3.991
2000	18	9	1	8	13	75,85	4.222
2001	20	3	1	1	3	24,88	4.290
2002	9	2	0	1	1	14,72	4.833
2003	1	0	0	0	0	0,00	5.216
2004	6	3	0	1	4	19,16	5.571
2005	9	4	1	3	3	23,25	6.121
2006	8	2	1	0	1	11,36	6.264
2007	9	2	0	0	3	12,67	5.618
Guztira	119	39	5	24	37	30,90	4.998

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bate-ginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiek aziendaren aurka eginiko erasoek sortutako arazoak konpontzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zer neurri hartu behar dituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak saiek aziendaren aurka eginiko erasoek sortutako arazoak konpontzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du saiek abereei eginiko erasoei buruz (PES 142/2008). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Ekainaren 2ko 607/1997 Foru Aginduan jasotzen diren laguntzez gain, departamentuak zer neurri planteatzen ditu saiek abereei eginiko erasoen arazoa konpontzeko?

Eraso-kopuruari dagokionez, kalkulatzeko urtean hogeita hamar bat kasu baino gutxiago daudela, eta hori guztiz bat dator ikertzaileek espeziearen parametro normal gisa darabiltzaten datuekin. Datu horiek egiaztatzen dira albatari adituen txostenen bidez. Horiek, zenbait probaren bidez, aurkeztutako erreklamazioen %55 baino gehiagotan gezurtatu egiten dute eraso gertatu izana.

Departamentuak, 1997. urteaz geroztik abian jarritako kalte-ordainen sistema ahal den neurrian hobetzeko asmoz, aurtun adituen lana sendotu du

teknikari albatari berri batekin. Hori horrela, hobetu da adituen jarduketaren azkartasuna eta, horrekin batera, lanaren eraginkortasuna.

Gainera, departamentuak hegazti nekrofagoentzako bazkatokien sare koherentea sortzea bultzatu du. Sare horrek aukera emanen du bazkatokiak eremu eta une egokietan kokatzeko, elikagaien bila sakabanatzen diren saiek eragin ditzaketen kalteak txikiagotze aldera, eta, aldi berean, espezie horren populazioaren gutxieneko bat mantentze aldera.

Ildo horretatik, departamentuak bazkatoki ezberdinak sortzeari ekin dio, eta horretarako, hitzarmenak sinatu ditu udal ezberdinekin. Jarduera hori zaila da, izan ere, departamentua udalaren erabakiaren menpe dago herrilurretan azpiegiturak ezarri ahal izateko; baina lan horrek dagoeneko eman ditu bere fruituak. Bi simaurtegi duela hilabete batzuk hasi ziren funtzionatzen (Napal eta Irunberri); beste lautan egokitze-lanak amaitu dira, eta laster jarriko dira abian, izan ere udalaren oniritzia daukate eta abeltzaintzako osasun-baimena ere bai (Zarrakaztelu, Zudairi, Zangoza eta Garralda); beste batzuk eraikitze edo egokitze fase aurreratuan daude, behin administrazio erakundeen adostasuna lortu ondoren, eta abeltzaintzako osasun agintarien alde aurreko oniritzia jaso ondoren. Sare hori udan zehar handituz joan da.

2.- Zenbat sai-bikote dago erroldatuta gaur egun Nafarroan? Urteen arabera bereizita.

Azken errolda 2004. urtean egin zen, eta ikusi zen sai-populazioa handiagoa zela aurreko erroldan baino (1999), eta habia egin zuten bikoteen kopurua 2.751koa zela. Hona bost urtean behin egiten diren errolden bilakaera jasotzen duen taula:

Urtea	1979	1984	1989	1994	1999	2004
Errolda	312	517	948	1.457	2.004	2.751

Beraz, datorren urtean egingen da hurrengo errolda.

Alabaina, 2007an eta 2008an zehar, ohiz kanpoko jarraipen bat egin da, Nafarroan dauden 11 kolonia nagusien produktibitatea aztertzeko. Kolonia horiek, gutxi gorabehera, Foru Komunitatean habiak jartzen dituen populazioaren herena osatzen dute; beraz, lagin hori nahiko esanguratsua da populazio osoari dagokionez.

2007an egindako azterketaren arabera, %11ko jaitsiera egon zen 2004ko erroldarekin alderatuta. 2007an agerian jarri zen kolonia nagusietan habiak jartzen zituen populazioa nabarmen jaitsi zela, nahiz eta zaila den hori estatistikoki zehaztea urte anitzetako serie bat egiten den arte; baina horrek erakusten du urte hartan beheranzko joera bat egon zela, eta gure ustez, joera hori Nafarroan habiak jartzen dituen sai-populazio osora estrapola daiteke.

Alabaina, 2008an azterketa berdina egin zaie 11 kolonia horiei, eta ikusi da beherapen hori oso apala dela aurreko urtearekin alderatuta (%0,5). Datuen arabera, ez dirudi aurten populazioaren jaitsiera nabaririk dagoenik; alabaina, ondoko nabarmendu behar da: populazioaren hazkunderen zikloa 2007ra arte hautsita egoteak, batetik (hala adierazten dute 2007ko eta 2008ko datuek), eta kolonia ezberdinetan joera ezberdinak haute-mateak, bestetik, esan nahi du arretaz jarraitu beharko direla datorren urteko erroldaren datuak, zehaztu ahal izateko zenbateraino doitu behar den sai-populazioa egoera berri honetara.

Laburbilduz, eta jasotako informazioa oraindik nahikoa ez bada ere, tokian tokiko ezberdintasun handiek, kolonia batzuetako demografian bat-batean izandako aldaketek, sai dentsitate handiena duten eskualdeetan sai-populazioak behera egiteak, Pirinioetako beste eremu batzuetan izandako ohiz kanpoko hazkunderak eta eskualdeko populazioaren beherapena moteltzeak, horrek guztiak, badirudi adierazten duela sai arreak populazioa berregokitzen ari dela eskualdean. Gainera, badirudi berregokitzen hori maila ezberdinetan gertatzen ari dela (toki-, eskualde- nahiz herrialde-mailan), eta dirudenez, ondokoak baldintzatzen du: saiek hasieran zuten dentsitatearen eta elikagaiak izatearen eta/edo gorpuak eraginkortasunez jasotzearen arteko erlazioak.

Beti ere, azterketa hau kolonia jakin batzuetan oinarrituta egin da eta, betiere, habiak jartzen dituen sektoreari erreparatu. Hori horrela, azterlan horrek ez du aukerarik ematen sai gazteen edo heldu gabeen bilakaera zehazteko –horiei gehiago eragiten diete aldaketek–; sektore hori behar beza-

la aztertu ahal izanen da datorren urterako aurreikusita dagoen erroldaren bidez.

3.- Zer neurri planteatuko dira saien populazioa kontrolatzeko?

Saia Espezie Mehatxatuen Katalogoan agertzen da, bai Nafarroan (563/1995 Foru Dekretua), bai nazioan (439/1990 Errege Dekretua), eta “interes bereziko espezieen” sailean dago. Gainera, nazioarteko hitzarmenek babesten dute espezie hori: 79/409/EEE Zuzentaraua (I. eta II. eranskina), Bernako Hitzarmena (II. eranskina), Bonneko Hitzarmena (II. eranskina).

Legedi horrek guztiak ezartzen du, arau orokor gisa, espezie horien babesa eta biziraupena bermatuko dela eta horien populazioak sustatuko direla, espezie horien kontserbazioa bermatze aldera. Hori da administrazio publikoen legezko betebeharra, ez bada ohiz kanpoko egoerarik sortzen, populazioa kontrolatzeko behar justifikatua erakartzen duena, ondoko arriskuak egoteagatik: pertsonen osasunerako arriskua, kalte ekonomiko handiak, ingurumenari kalteak, segurtasun nazionalerako arriskua...

Egun, ez da betetzen legean ohiz kanpokotzat aurreikusitako kasurik saia bezalako espezie babestuak kontrolatzeko; izan ere, espezieak eragin dituen kalteak espeziearen parametro normalen barnean daude, eta kalte horiek, funtsean, ez dira espeziearen populazio mailaren arabekoak. Beraz, egungo egoerari dagokiona da arau orokorra betetzea; alegia, populazioa babestea eta sustatzea. Ildo horretatik, ezin da ahaztu Nafarroak Europa mailan duen erantzukizuna espeziea babesteari dagokionez; izan ere, ez dago honelako espezierik Europako eremu zabal batean.

Berez, badirudi 2007ko eta 2008ko datuek agerian uzten dutela populazioak beherantz egin duela; baina beharrezkoa da datu horien azterketa sakonagoa eta jarraia egitea, espeziearen babeserako inolako arriskurik ez dela sortzen bermatze aldera. Nolanahi ere, egun ez dago desagertzeko arriskuan.

Beraz, laburbilduta, bost dira departamentu honen jarduera a priori baldintzatzen duten alderdiak:

1. Egiaztatzea eraso-kopurua bat datorrela ikerlarietako espeziearen parametro normaltzat jotzen dituzten datuekin.

2. Erreklamazioei ematen zaien erantzuna hobetzea; horretarako, lan-taldea indartuko da eta erreklamaziogilearengana heltzeko denbora murriztuko da.

3. Bazkatokien sare kontrolatu bat eratuko da, eta horrek aukera emanen du bazkatoki horiek eremu eta une egokietan kokatzeko, elikagaien bila sakabanatzen diren saiek eragin ditzaketan kalteak txikiagotze aldera, eta, aldi berean, espezie horren populazioaren gutxieneko bat mantentze aldera. Sare hori udal ezberdinekin sinatutako hitzarmenen bidez sortzen ari da.

4. Teknikariek hauteman dute agerikoa dela sai-populazioa egoera berrira egokitu dela, zeinean elikagaien eskuragarritasuna ezberdina baita. Baliteke berregokitzapen natural horrek oraindik ere urte batzuk irautea; baina zalantzarik gabe sai-

populazioa doituko da eta egoera berriaren arabera sakabanatuko da.

5. Egoera berri hori dela-eta, seguruena da erasoek behera egitea. Horrek, gainera, aukera emanen du erasoak direla-eta kalte-ordaina jaso behar dutenen kasuak errazago hautemateko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, kirolaren babeserako 2,8 milioi euroko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du kirolaren babeserako 2,8 milioi euroko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 18ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortés andreak galdera egin du kirola babestera bideratutako kontusailari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

María Luisa Mangado andreak ondoko galderak egin ditu "Nafarroako Erresuma" izeneko turismo-markaren bidez kirola babestera bideratutako kontusailari buruz:

1. Zein irizpide daude babesletza horiek banatzeko?

2. Zer bide baliatzen da talde horiei aipatu dirulaguntzak helarazteko?

Lehenik eta behin, hautapen irizpideei dagokionez, adierazi behar dugu babes-kontratuak izanik, hartzaileak hautatzeko aintzat hartzen dela

marka hori sustatzeak duen errentagarritasuna. Horretarako, kontuan izaten da marka horrek lortzen duen hedapen-maila kirol lehiaketetan parte hartzean.

Ildo horretatik, Nafarroako Kirol Institutuak ondokoak hartzen ditu kontuan klubak hautatzera-koan: taldearen kirol modalitatearen kategoria, kirolaren ezaugarriak, eta kirol horrek duen hedapena eta garrantzia, parte-hartze nazional nahiz nazioartekoari dagokionez.

Ondoren, egindako proposamen guztien txostena prestatzen du Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak. Txosten horretan zehazten da kasuan kasuko hitzarmenak izan dezakeen errentagarritasun ekonomiko eta soziala, jazozen diren gorabehera zehatzen arabera.

Behin hautaketa eginda, adierazitakoari jarraituz, Nafarroako Kirol Institutuak kasuan kasuko hitzarmena sinatzen du. Horren bidez, "Nafarroako Erresuma" izeneko markaren publizitatea egiteko baldintzak ezartzen dira, eta hitzarmena sinatu duen entitateak onartu beharko ditu.

Baldintzak bete direla ziurtatuta, ezarritako zenbatekoak ordaintzen dira, ekainaren 30era bitarteko lehen epe batean –dagokion ordainketa-ebazpenaren bidez– eta abenduaren 31ra bitarteko bigarren epe batean, baldintza beretan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 6an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko apirilaren 25eko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Rozalejoko Markesaren Jauregiari emanen dion erabilerari eta harentzat duen egitasmoari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Turismoko Plan Estrategikoa beteazeari begira, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak hainbat sustatze- eta garatze-programatan dihardu; besteak beste, Prestakuntza Programan.

Programa horri dagokionez, departamentuak, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean eta Tuñón Asociadosen aholkularitza teknikoarekin, aztertu zuen zein zen prestakuntzaren egoera turismo-sektorean –bai prestakuntza arautuan bai etengabekoan eta lanerako prestakuntzan–, eta ekintza plan bat ere egin zuen turismo arloko prestakuntzarako.

Plan horretan beharrezkotzat jo zen turismo arloko prestakuntza arautua sendotzea, sektorearen beharrak asetze aldera. Halaber, planean proposatu zen Turismoko Diplomatura sustatzea, bai eta graduondoko ikastaro zehatzak bultzatzea ere.

Lanbide Heziketaren kasuan, turismo arloko prestakuntzarako ekintza planean planteatu zen Ibaialde Bigarren Hezkuntzako Institutuko Ostalaritza Eskola sendotzea. Horretarako, prestakuntza modulu berriak emanen ziren Ostalaritza eta Turismoko alorretan.

Etengabeko Prestakuntzari dagokionez, planteatu zen Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin batera

aztertuko zela INAFREk zenbateko handiagoa bideratzea turismo-sektoreko ikastaroak egitera.

Halaber, proposatu zen Nafarroako Ostalaritza Ikasketen Zentroa sendotzea, Foru Komunitatean etengabeko prestakuntza bermatzen duen zentro bakar gisa; horretarako, bere instalazioak handitzeko aukera emanen zitzaion eta finantzaketa Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin sinatutako hitzarmen baten bidez eginen zen.

Zentrotik –garai hartan Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberaren egoitzan zegoen– udalari eta Nafarroako Gobernuari proposamena egin zitzaion lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko, zentroa beste eraikin batean kokatze aldera. Hori horrela, zentro hori Rozalejoko Markesaren Jauregian kokatzeko aukera aztertu zen. Horrek eskatzen zuen eraikina bere osotasunean birgaitzea.

Proiektua bideragarria zela ikusirik, Iruñeko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak (horren kide da Nafarroako Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteak) adostu zuten elkarrekin sustatuko zutela zentroa eraikin horretan kokatzea, ondoko helburuekin: Iruñeko Alde Zaharrari hezkuntza ekipamendu berria ematea, Rozalejoko Jauregia berreskuratzea eta birgaitzea, eta ostalaritzaren alorrean prestakuntza integrala eta kalitatezkoa eskaintzea eta egungo Nafarroako Ostalaritza Ikasketen Zentroa sustatzea.

Eraikina bere jabeen erosi zitzaion, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eginiko zuzemenean bidez. Aipaturiko hiru erakunde horiekin izandako elkarrizketak gauzatu ziren Iruñeko Udalak, Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteak eta Gobernuak sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenean. Horren bidez, Rozalejoko Markesaren Jauregian, Iruñean, kokatuko zen ostalaritzaren prestakuntza emateko zentroa.

Gero, Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarteak berriz hausnartu zuen proiektu horretan parte hartzeari buruz, eta azkenik, erabaki zuen proiektuari uko egitea.

Orduz geroztik, beste erabilera batzuk aztertze-ko pausuak eman dira. Horiek aztertuko dira behar-arabera eta Nafarroa 2012 Planaren esparruan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko praktikan zer-nolako eragina izanen duen, adimen-gaixoen laguntzari dagokionez, adimen osasuna Laguntza Espezializatua-ren alorrean sartzeak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko praktikan zer-nolako eragina izanen duen, adimen-gaixoen laguntzari dagokionez, adimen osasuna Laguntza Espezializatuaren alorrean sartzeak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko praktikan zer nolako eragina izanen duen, buru-gaixoen laguntzari dagokionez, buru-osasuna Laguntza Espezializatuaren alorrean sartzeak. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Buru-gaixotasuna duten pertsonengan izanen duen eragina funtsezkoa izanen da; izan ere, asmoa da egitura komun eta bakar batean biltzea –Laguntza Espezializatua– egungo buru-osasuneko zentroa eta ezarriko diren programa eta tresna berriak. Horrek, aldi berean, ahalbidetzen du buru-gaixotasunak dituzten pertsonen tratamendu jarraitua izanen dutela bermatzea, bai eta egitura horri koherentzia eta kohesioa ematea, sortuko diren tresna berrien bidez; adibidez:

– Psikiatria unitate bat Tuterako Reina Sofía Ospitalean.

– Eguneko ospitale bat (horren bideragarritasuna azterketa fasean dago) ospitaleko akutuen unitateari atxikia.

– Haur eta gazteentzako arreta programa. Horren funtzionamendua zehaztuko da Haur eta Gazteentzako Planean.

2.- Unitatearen behin betiko proiektua zehazteke dago. Alabaina, ondokoak izanen lirerateke baliabideak, gutxi gorabehera:

TUTERA:

Akutuen unitaterako eta eguneko ospitalerako:

– 2 psikiatra

– Psikologo 1 lanaldi partzialean

– Erizaintzako Unibertsitate Diplomadunak-EUD (zati proportzionalak, ratio eta ordutegien arabera)

– Klinikako laguntzailea (zati proportzionalak, ratio eta ordutegien arabera)

– Lan bidezko terapeuta 1 (eguneko ospitalea bideragarria bada)

– Gizarte langile 1 (Reina Sofía Ospitalekoa)

– Administrari 1 (Reina Sofía Ospitalekoa)

– Zaindari 1 (Reina Sofía Ospitalekoa)

Gainera, ondokoak artatuko lirerateke:

– Eremu horretako larrialdiak (Tutera eta esku-aldea)

– Reina Sofía Ospitaleko interkontsultak

Proiektu hau oraindik hausnarketa eta azterketa fasean dago.

Haur eta gazteentzako arreta proiektuari dagokionez:

– Haur-psikiatrian aditua den psikiatra 1

– Haur-psikologian aditua den psikologo 1

LIZARRA:

Haur eta gazteentzako arreta proiektuari dagokionez:

– Haur-psikiatrian aditua den psikiatra 1

– Haur-psikologian aditua den psikologo 1

3.- Goian adierazitako tresna horiek legegintzaldi honetan zehar ezarri joanen dira. Proiektuak fase aurreratuan daude eta asmoa da 2008ko azken hiruhilekoan funtzionatzen hastea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 20an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak neurriak hartzeko asmorik ote duen Cortes udalerriko biztanleek iturriko ura kontsumitu ahal izan dezaten haien osasuna arriskuan jarri gabe.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak neurriak hartzeko asmorik ote duen Cortes udalerriko biztanleek iturriko ura kontsumitu ahal izan dezaten haien osasuna arriskuan jarri gabe.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak neurriak hartzeko asmorik ote duen Cortes udalerriko biztanleek iturriko ura kontsumitu ahal izan dezaten haien osasuna arrisku-

an jarri gabe. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, egiaztatuta geratu zen moduan, joan den urtean behin ere ez zen arriskuan egon Cortes udalerriko biztanleen osasuna haien hornidura-sistemako ura kontsumitzeagatik.

Bestalde, araztegi berria 2008ko urtarrilean jarri zen abian, probaldi bati hasiera emanez. Probaldi horretan, hala udalerriko hornidura-sistemen kudeatzaileak, nola Osasun Publikoaren Institutuak, instalazio horren funtzionamendua aztertze beharrezkoak ziren ikuskapen guztiak egin zituzten, bai eta uraren kalitatearen jarraipen analitikoa ere.

Ura tratatzeko produktuen erabilera-baldintzak doitu ondoren, azken analisisen emaitzek erakutsi dute balioak bat datozela edateko uraren kalitateari buruzko araudiarekin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 20an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, eginen ez den Pirinioetako autobia eraikitzeke aurrekontu-esleipenari emandako xedeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du eginen ez den Pirinioetako autobia eraikitzeke aurrekontu-esleipenari emandako xedeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zein den Pirinioetako autobia eraikitzeke aurreikusi zen kontusailari emanen zaion xedea. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

2002-2009 urteetarako errepideei buruzko II. plan zuzendarian 28,85 milioi euroko inbertsioa aurreikusi zen, "beste autobia batzuetarako" ondo-ko urteko kuotetan banatua: 10,22 milioi euro 2008rako, eta 18,63 milioi euro 2009rako. "Beste autobia" horiek dira plan horren egitasmoan sartzen ez direnak; alegia, A-12, A-21 eta A-68.

Aurreikuspen horiek gorabehera, Nafarroako Parlamentuak aurrekontu-esleipen bakarra onetsi zuen 2008ko aurrekontuan: "Medinaceli-Soria-Tutera autobia" izeneko kontusaila. Kontusail horri 0,10 milioi euro esleitu zitzaizkion, eta horrek aukera emanen du 2008an proiektuari ekiteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako bazter-babesen zuzenketa integrala egiteko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako bazter-babesen zuzenketa integrala egiteko planari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako bazter-babesen zuzenketa integrala egiteko plana. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1) 2006ko irailaren 29an Nafarroako Gobernuak –Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren bidez– hitzarmen bat sinatu zuen Asociación Mutua Motera elkartearekin, Nafarroako Motoziklismo Federazioarekin eta Nafarroako motoklubekin. Horren xedea zen lankidetzarako esparru bat ezartzea, motozikletekin eta bi gurpileko bestelako ibilgailuekin zerikusia duten errepide-ezbeharrak murrizte aldera.

Hitzarmen horren bidez, Nafarroako Gobernuak, batetik, adostu zuen errepideetan neurriak hartuko zituela, arriskuak murrizte aldera; eta motorzaleen elkarreketako ordezkariak, bestetik, arduraz jokatzeko eta bide-segurtasuna sustatzeko konpromisoa hartu zuten.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, hartutako konpromiso hori betetzeko, azaroaren 30eko 173/2006 Foru Aginduaren bidez instrukzio bat onetsi zuen, motoziklistak babesteko sistemak erabiltzeko irizpideei buruzkoa. Xedea honakoa zen: motorzaleentzako arriskuak murrizteko sistema bat ezartzea Nafarroako errepide sareko babes-hesietan, istripua gertatuz gero arrisku handienekotzat jo ziren tartetean.

Gainera, administrazioak adostu zuen katalogo bat onetsiko zuela motoziklistentzako babesgarriei buruz, Motoziklistak Babesteko Sistemak (SPM)

dituzten hesiak eredu ofizialki homologatuei jarraikiz ezartzeko. Horretarako, abenduaren 22ko 188/2006 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen Motoziklistak Babesteko Sistemak Katalogoan sartuko zela SPM-ES4 babes-sistema.

Jarraibide tekniko hori ondokoetan aplikatzen da: teknikoki onesten diren proiektuetan eta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera errepideak eraikitze edo berritzeko eginiko lanetan –orduantxe hasitakoetan nahiz egiten ari zirenetan–. Aplikatzen da, halaber, babes metalikoak birjartzeko lanetan –mantentze-lan arruntan barnekoetan–, aipaturiko instrukzioa onetsi zenetik aurrera eginikoetan.

Hitzarmenak ezartzen duenari jarraikiz, departamentuak instrukzio tekniko hori aplikatu eta inbentario bat egin zuen 2006. urtea bukatu baino lehen, non jaso zituen Motoziklistak Babesteko Sistemak instalatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituzten babes metalikoen tartekak. Inbentario horren emaitzak aintzat hartuta, urte anitzeko plan bat egin zen errepide sareko babes metalikoak egokitzeko. Egokitu beharreko tarteen luzera, guztira, 32 kilometrokoa zen. Urte anitzeko jarduketa plan bat egin zen, Motoziklistak Babesteko Sistema 32 kilometro horietan ezartzeko, 2007-2011 aldian. Plan horretan aurreikusitako 300.000 euroko gastua egonenez zela, 2007tik 2011ra bitarte dauden 5 ekitaldi ekonomikoetan egiteko. Plan hori hitzarmenaren jarraipen batzordean adostu zen; batzorde hori osatzen zuten hitzarmena sinatu zuten erakundeetako ordezkariak.

Aurreikuspen horretan oinarrituta, Motoziklistak Babesteko Sistemak ezartzeko kontratua egin zen, 2007. eta 2008. urteetarako, eta 300.000 euroko aurrekontua onartu zen ekitaldi ekonomiko horietako bakoitzerako.

Horretaz gain, 2007an, 695.960 euroko kontratua gauzatu zen 2007. urterako, eta joan den astean ohiz kanpoko beste kontratu bat esleitu zen, 300.000 eurokoa, 2008. urte honetarako. Hortaz, 2007-2011 bosturtekorako aurreikusitako inbertsioa aurreratu da eta 2007-2008 aldian eginen da.

Planaren egungo egoerari dagokionez, erantsitako taulan adierazi da, aparteko gastuak ere barne hartuta (2008ko apirilera arte).

Bertan ikus daitekeenez, 2008. urte amaieran jarrita egonenez dira planaren xede diren bazter-

hesien 32 kilometroak; hau da, hiru urteko aurrerapenarekin.

Administrazioak hartutako beste konpromiso bat ondokoa izan zen: 2007. urtetik aurrera, motoren istripuak gertatzen ziren tartek ere aintzat hartuko ziren istripu ugari tartek eta arriskutsuak izan litezkeen tartek kentzeko urteko planetan. Hori sistematikoki egiten ari da, eta aipaturiko plan horietan sartzeko dira, halaber, urtero egindako azterketa horietatik ateratzen diren babes-neurriak.

2) N-232 (A-68) errepidearen bikoizketari dagokionez, babeserako sistemak (SPM) jarriko dira azaroren 30eko 173/2006 Foru Aginduren arabera horien beharra dagoen tarte guztietan. Kasu honetan, babes mota hori ondoko tartetean jarriko da:

Castejón-Tutera

– Zehaztu behar da tarte horretan New Jersey izeneko hesiak jarriko direla uhinbikoaren ordeztu ondoko luzerekin:

– Erdibitzaile nagusia, New Jersey hesiaren bi aldeetara (14.000 metro)

– New Jersey hesia, lotuneen adarretan: 3.000 metro

– Faldoia adarren elkargunean: 200 metro

Buñuel-Cortes

– Faldoia adarren elkargunean: 150 metro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

(Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentario eskura dago 7-07/PES-000114 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen: <http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>)

Galdera, Telefonía móviles España S.A. enpresak aurkeztu dituen kokapen eta mikrozelula berriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Telefonía móviles España S.A. enpresak aurkeztu dituen kokapen eta mikrozelula berriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betetz, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentarien elkarteko foru parlamentario Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du "Telefonía móviles España, S.A." enpresak dituen instalazioei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Telefónica Móviles España S.A. enpresak, 2006ko abenduan, bere azpiegiturei buruzko lurralde planaren aldaketa bat aurkeztu zuen, planean 24 oinarritzko estazio berri eta 19 mikrozelula

sartzeko. Ondoren, 2007ko urrian eta abenduan, operadoreak kokaleku berri bat aurkeztu zuen Izaaban, eta aldaketa bat Eskirozko mikrozelulan.

1. Hona kokaleku horietan sartzeko diren udalak: Aranguren, Barasaburua, Baztan, Beriain, Berriobeiti, Cabredo, Eulate, Galar, Izaba, Txulapain, Larragoa, Lesaka, Marañón, Murillo el Cuenca (Rada), Noain-Elortzibar, Olo, Iruña, Gares, Erronkari, Tiebas-Muru Artederreta, Tutera, Bidanoke eta Zizur Nagusia.

2. Kokaleku bakoitzari buruz aurkeztu den fitxan, ondoko ezaugarriak adierazten dira: kokalekua eta lokalizazioa, begi- eta ingurumen-eragina, datu teknikoak eta igorpen erradioelektrikoak.

3. Erantzun honen lehen atalean agerienez, Iruña sartuta dago Telefonicaren azpiegiturei buruzko lurralde planeko udalerrien zerrendan. Plan hori aurrera eramateko, enpresak bete behar du alor horretan indarrean den araudia, zeinak mugak jartzen dizkien horrelako instalazioei eskola eta ospitale inguruetan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Erronkariko enpresa-parkean, Burgin, lursailak erosteko aukera izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erronkariko enpresa-parkean, Burgin, lursailak erosteko aukera izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Erronkariko enpresa-parkean lursailak erosteari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Erronkariko enpresa-parkean ba al dago lursailak erosteko aukerarik? Zer azalera erosteko aukera dago? Zer jardueratarako? Zer enpresarentzat?

Oraindik ez da Burgiko industrialdearen lursailen gainean erreserbarik edo erosketa-aukerarik formalizatu, nahiz eta horiek saltzeko eskaintza egina dagoen. Orain arte eremu horretako enpresa batzuek beren interesa adierazi dute, baina oraindik ez da kontraturik sinatu.

Kasu honetan, ez da toki-mailako industrialde txiki bat; alegia, bere tamaina dela-eta, ezin da

sartu Nafarroako Gobernuak duen laguntza lerroan (industrialdearen azalera alde handiz gainditzen du 20.000 metro koadroko muga). Hori horrela, erosketa-aukerak lursailen azalera %30era iristen direla ziurtatzen den arte, ez da beharrezkoa urbanizazio obrak atzeratzea

b) Zer zuzemen ari da egiten Gobernuak, aipaturiko enpresa-parkean kokatuko diren enpresak lortze aldera?

Nasuinsak, behin lursailen salneurria ezarrita (joan den urteko abenduan), eta urbanizazio obrak egiten ari zirela, lursail horiek saltzeko eskaintza egin zuen; horretarako, sozietate horrek, sustatzen dituen jarduketa guztiekin egiten duen bezala, eskaintza horren berri eman zien gure merkataritza zerbitzura jo zuten interesatu guztiei, eta eskaintza hori bere web orrian sartu zuen.

Sozietate publiko horrek ezin du lehenetsi jarduketa edo kokaleku jakin baten eskaintza, Nafarroan dituen beste jarduketa batzuen kalterako bada. Alabaina, elkarrizketak izan dira Erronkari Ibarreko Udalarekin eta Batzarrarekin. Asmoa da bi erakundeetatik harremana sustatzea eskualde horretako enpresekin eta enpresaburuekin, honako xedearekin: horiek lekuz aldatzea edo industrialdean jarduera berriak sortzea, eta eskualdeko jarduera ekonomikoa dinamizatuko duten proiektu exogenoak erakartzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Deikazteluko industrialdean erosketa-aukera formalizatuak dituzten lursailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Deikazteluko industrialdean erosketa-aukera formalizatuak dituzten lursailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Deikazteluko industrialdean lursailak erosteari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Azaleraren zer ehuneko egiten dute Deikazteluko industrialdean formalizatu diren erosketa-aukerek?

Oraindik ezin izan da erreserbarik edo erosketa-aukerarik formalizatu Deikazteluko industrialdeko lursailen gainean, nahiz eta lursail horiek saltzeko eskaintza 2006ko urtarriletik dagoen.

Aurretik ere jakinarazi denez, Deikazteluko udal industrialdea udalarekin batera sustatu zen, Nasuinsa enpresarekin sinatutako hitzarmen

bat bidez, eta dagoeneko merkatuan aurkeztu da, udalak horretarako antolatu zuen ekitaldi publiko batean, 2006ko urtarrilaren 26an. Ordurako hirigintzako izapide guztiak amaituta zeuden (urbanizazio plangintza eta proiektua onartuak zeuden) eta lursailak udalaren jabetzapean zeuden. Orduz geroztik, Nasuinsak industrialde horretako lursailak eskaini ditu dagoeneko ezarrita zeuden salmenta-prezioetan.

Hala ere, Nasuinsak mota honetako sustapenetan ezin die urbanizazio obrei ekin harik eta ziurtatzen duen arte erosketa-aukerak industrialdearen azaleraren %30era gutxienez iristen direla. Hau da, gutxienerako eskari ziur bat egon behar da, zeinak inbertsioa justifikatzen duen, eta halaber, dirulaguntzak eskuratzea ahalbidetzen duen –hain zuzen ere Nafarroako Gobernuak jarduera ekonomikoen udal eremuak sustatzeko asmoz ezarritakoak–. Hori da jarraitu ohi den prozedura, toki mailako antzeko jardueretan.

Eskaria orain arte ezin izan da gauzatu erosketa-aukera ziur batean, behar bezala formalizatutako aukera batean; beraz, aipaturiko obren hasiera atzeratu da. Lan horietarako aurreikusi den aurrekontua 1,22 milioi eurokoa da, eta asmoa da obrak zortzi hilabeteen egitea, erosteko aukera horiek formalizatzen direnetik hasita.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, zenbait udalerritan 2008an erosi nahi diren lursailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du zenbait udalerritan 2008an erosi nahi diren lursailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2008an erosi dituen lursailei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Zer lursail erosi nahi dira 2008an Getzeko Ordokian?

Ez dago aurreikusita 2008an Getzeko Ordokian lursail gehiagorik erostea. Bere garaian jakinarazitako zenbateko hori aurreikuspen bat zen, bere garaian eginen zen desjabetzearen balio justuari aurre egiteko pentsatua. Kalkulu horretan sartzen dira, auzitegiek lursailari ezartzen ahal dioten zenbatekoaz gain, berandutza-interesak, gastu judizialak eta lursaila prozedura horren bidez erostearekin zerikusia duten beste gastu batzuk.

b) Zer lursail erosi nahi dira 2008an Lodosan?

Udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialaren datuen arabera –plan hori hasieran onartu zen eta jendaurreko erakustaldian dago–, Lodosa-ko industrialderako aurreikusi den azalera osoa 88 hektareakoa da; beraz, kalkulatu da 2008an erosi eta/edo desjabetuko den azalera izanen dela azalera osoaren %70 inguru; hots, 600.000 metro koadro baino zertxobait gehiago.

c) Zer lursail erosi nahi dira 2008an Rocaforte handituan?

Erosi nahi diren lursailak izanen dira industrialdearen eremu osoarenak, azkenean onetsiko den udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialari jarraikiz. Kasu honetan, egun izapidetze fasean den hirigintza-dokumentuaren arabera –aldaketak

izan ditzake– lursailen azalera 211.067 metro koadrokoa da.

d) Zer lursail erosi nahi dira 2008an Comarca-3 izenekoan (Elortzibar)?

Galdera hori aurrekoaren antzekoa da. Hau da, 2008ko ekitaldirako 742.000 euroko aurreikuspena egin zen, ekitaldi honetan izan litezkeen desjabetze gastuei aurre egiteko; baina zenbateko hori ez dago zuzenean lotuta azkenean prozedura horren bidez eskura daitezkeen azalerekin. Edonola ere, hasieran onetsi zen eta oraindik behin betiko onepenen zain dagoen udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialaren arabera, azkenean eskuratu beharko den azalera –adostutako akordio bidez nahiz desjabetzearen bidez– 600.000 metro koadrokoa izanen da.

e) Zer lursail erosi nahi dira 2008an Urdiain-Altsasun? Urdiainen eta Altsasun erosi nahi den azalerari buruzko informazioa bereizita jaso nahi genuke.

Nafarroako Gobernuak joan den maiatzaren 19an hartutako erabakiaren bidez, proiektua behin betiko onetsi zen eta jarduketarako bi hirigintza-sektore taxutu ziren. Horiek ibaiak bereizten ditu eta independenteak dira; bata, 647.139 metro koadrokoa, Urdiainen dago, eta bestea, 290.558 metro koadrokoa, Altsasun.

Beraz, 462.000 euroko aurreikuspen hori Urdiainen lursailak erosteko da, dagoeneko aurretik erantzun denez; izan ere, Altsasun ezin izanen da desjabetzerik egin harik eta aipaturiko plan partziala egin eta izapidetzen ez den arte –plan hori, aldi berean, aurretik egin beharreko azterlan arkeologikoei baldintzatzen dute–. Edonola ere, adierazitako kantitatea ez dago zuzenean lotuta azkenean Urdiainen 2008an eskura daitezkeen lursailekin, baizik eta sektore osoa eskuratzeko kostuen zati batekin.

f) Zer lursail erosi nahi dira 2008an Izarbeibaren?

5 €/m⁻² -ko prezioan oinarrituta, kantitate bat esleitu zen 385.000 metro koadro inguru eskuratzeko. Alabaina, duela gutxi behin betiko onetsi den udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektoriala dela-eta –aldaketa nabarmena egin zaio hasieran proposatutako azalerari, izan ere %50 baino gehiago murriztu da–, eta aintzat hartuta Nasuinsak aurreko urteetan eskuratutako lursailak, aurreikuspen hori orain ez da ziurra.

Aurretik finkatutako aurreikuspenen arabera, 385.000 metro koadro eskuratzeko asmoa zegoen. Alabaina, aurreikuspen hori egokitu beharko da Izarbeibarreko jarduera ekonomikoen ereduaren udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektori-

alera. Horrek jarduketarako eremua %50,4 murrizten du, 589.068 metro koadrorera heltzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publikoaren ustiapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publikoaren ustiapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Berrikuntzaren Hiriaren zerbitzurako jarri den aparkaleku publikoari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Zein datatan eskatu zen irekitzeko lizentzia? Noiz eman zen, azkenik, lizentzia?

Jarduera sailkatuen espedienteari hasiera eman zitzaion 2005eko urtarrilaren 19an (2005eko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Aldizkari Ofiziala) eta amaitu zen jardueraren lizentzia eman zenean, 2006ko abenduaren 21ean (2007ko urtarrilaren 31ko 14. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Horren ostean, 2007ko martxoaren 2an eskatu zen irekitzeko lizentzia. Hori Eguesibarko alkate-lehendakariak eman zuen apirilaren 12ko 233/2007 Dekretuaren bidez, eta gure bulegoetara 2007ko apirilaren 19an heldu zen.

b) Zergatik ez ziren jarri langak eta kontroleko eta kudeaketako sistema informatikoa, barneko seinaleekin batera, 2007an zehar?

Joan den urtean zenbait eraikuntza-akats detektatu ziren aparkalekuan, eta beharrezkoa izan zen horiek konpontzea langak, kontroleko eta kudeaketako sistema informatikoa eta barneko seinaleak jarri baino lehen.

Bestalde, aparkalekua ustiatzeko moduak baldintzatu egiten zituenez aukeratu beharreko langak eta kontroleko eta kudeaketako sistema informatikoa, erabakia atzeratu zen, harik eta aparkalekua kudeatzeko modua zehaztu zen arte.

e) Noizdanik dago zerbitzuan aparkaleku hori?

Zehazki, 2007ko abenduaren 4tik, eta zerbitzua doakoa da.

d) Nasuinsak nola kudeatzen du aparkalekua, zuzenean ala beste moduren batean?

Nasuinsak zuzenean kudeatzen du aparkalekua.

e) Dirusarrerarik lortzen ari al da aparkalekua zerbitzuan jarri zenetik?

Aparkalekuan sistema informatikoa eta barneko seinaleak jarri ahal izateko, beharrezkoa zen aldi baterako aparkalekuaren zati bat ixtea (solairuka). Hori horrela, egokitzat jo zen aparkalekua kobratu gabe erabiltzen uztea, erabiltzaileei zerbitzua emate aldera.

f) Zein dira aparkaleku hori erabiltzeagatik tarifak?

Aparkalekuak harpidedun eta errotazio erregimena izanen du. Ondokoak dira ekainaren 1etik aurrera indarrean izanen diren tarifak 2008. urtean (BEZik gabe):

HARPIDEDUNAK

Hilabetekoa, 24 ordu	90.00
Hilabetekoa, 12 ordu, lan orduetan (7.00-19.00)	70.00
Egunekoa, 24 ordu (gutxienez 5 egun)	3.75
Harpidedun-txartelaren gordailua	5.00

ERROTAZIOA

Beheranzko biribiltzea 0,05era

Prezioa minutuko	0,025
Gutxieneko zenbatekoa (10 min)	0,250
Kortesia- denbora aparkalekua utzi arte	10 min
Gehieneko denbora eguneko (8 ordu)	12,00
Tiketa galtzea (egunekoa)	12,00

Minutuko tarifari dagokionez, esan diezazuket erabiltzaileek 15 minutuko tartearengatik ordaintzen dutena %4 gutxiago dela Iruñean 2007ko udazkenean zegoen tarifarik merkeena baino; era berean, aldi horretan zegoen tarifarik garestiena baino %56 merkeago.

g) Zenbat diru aurreikusten da emanen duela urtean aparkaleku horrek?

Kontuan izanik aparkalekua datorren ekainean hasiko dela ordainketa eran ustiatzen, ekitaldi honetarako 65.000 euro inguruko dirusarrerak aurreikusi dira –kalkulatuta aparkalekua %40 beteko dela, eguneko harpidedunen erregimenarekin (hilabetekoa, 12 ordu)–.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, zenbait industrialdetan eskuratutako lur-azalerari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du zenbait industrialdetan eskuratutako lur-azalerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 6ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2007an erosi dituen lursailak buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Zer lursail erosi dira 2007an Getzeko Ordokian?

Industrialde hori egiteko erosi den azalera gordin 417.249 metro koadrokoa da. Horretarako, prozedura ezberdinak erabili dira: 226.603 metro

koadro lursail desjabetuak dira, eta gainerako 190.646 metro koadroak formula ezberdinen bidez lortu dira.

Azken eta behin betiko kontabilitate-kostua ez da ezagutuko harik eta uneotan egiten ari den proiektuaren administrazio-prozesua amaitzen den arte.

b) Zer lursail erosi dira 2007an Tuteran?

Osoara 2.550.028 metro koadroko lurzoru gordin erosi da.

c) Zer lursail erosi dira 2007an Izarbeibarren?

Osoara 62.647 metro koadroko azalera erosi da.

d) Zer lursail erosi dira 2007an Los Arcosen?

2007an Los Arcoseko industrialdean lursail-kostu gisa kontabilizatutako inbertsioa honakoa izan da: lursailak aldi baterako okupatzearen eta zortasunen truke adostutako hitzarmenengatik egindako ordainketa eta esleipenei dagokiena. Baina ez da lursailik erosi ekitaldi horretan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 26an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako Gobernuak NA-411 errepidea, Ilarregi eta Auza artean, hobetzeko duen asmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak NA-411 errepidea, Ilarregi eta Auza artean, hobetzeko duen asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-411 errepidea Ilarregi eta Auza artean hobetzeko lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– NA-411 errepidearen tarte horretan badira zenbait asentamendu eta arrail, kalte egiten diotena ibilgailuen zirkulazioari. Arazo hori konpontze-

ko, aurreikusi da 14+000 eta 16+000 kilometroen arteko tartearen hobetzea. Hori zainketa-zentroaren menpeko errepideen zainketa integralaren kontratuaren baitan egingen da.

– Hobekuntza lanak ondokoak izanen dira: lurrari eusteko harri-lubetak, galtzadaren saneamendu lokalizatuak, drainatze sakona, areka zantzarria eraikitzea, fabrikako obrak ordezkatzeko eta aglomeratua sendotzeko geruza zabaltzea.

– Hobekuntza lan horiek direla-eta, tarte horretan txandakako zirkulazioa ezarriko da, semaforoen bidez arautua.

– Aurreikusita dago lanei maiatzaren azken astean ekitea. Lanak egiteko aurreikusitako epea hiru hilabetekoa da, gutxi gorabehera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Nafarroako toki entitateek hartutako akordio edo ebazpenei buruzkoa eta Toki Administrazioako Departamentutik deuseztatzeko egindako eskariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako toki entitateek hartutako akordio edo ebazpenei buruzkoa eta Toki Administrazioako Departamentutik deuseztatzeko egindako eskariari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko zenbat errekerimendu egin dituen departamentuak erabakiak edo ebazpenak deuseztatzeko 2003tik 2006ra; jakiteko zenbat errekerimendu edo aurkaratze aurkeztu diren auzitegietan 2007an eta 2008an; eta jakiteko ba al den beste departamentu batzuekin koordinatzeko tresnarik. Hona Toki Administrazioako kontseilariak emandako erantzuna:

1. Departamentuak erabakiak edo ebazpenak deuseztatzeko egin dituen errekerimenduak, 2003tik 2006ra.

Departamentuak 97 errekerimendu egin ditu toki entitateen erabakiak edo ebazpenak deuseztatzeko 2003tik 2006ra, biak barne.

Hona errekerimendu horiek, materien arabera banatuak:

Euskal Autonomia Erkidegoko bandera erakustea edo Nafarroako Foru Komunitateko bandera ez jartzea: 33 errekerimendu.

- Toki entitateen ondasunak: 6
- Korporazioko kideen ordainsariei buruzko erabakia: 2
- Obra-kontratazioa: 4
- Toki entitateetako langileak: 36
- Funtzionamendua: 1
- Lehendakaritza: 1

- Hirigintza: 7
- Euskara: 1
- Beste batzuk: 6

Toki entitateak:

Oibarko Udala
 Altsasuko Udala
 Antsoaingo Udala
 Arakil Ibarreko Udala
 Aranguren Ibarreko Udala
 Agoizko Udala
 Arasko Udala
 Armañantzasko Udala
 Asartako Kontzejua
 Atezko Udala
 Azagrako Udala
 Bakaikuko Udala
 Barasoaingo Udala
 Baztango Udala
 Berriozarko Udala
 Burlatako Udala
 Cadreitako Udala
 Caparrosoko Udala
 Cárcarko Udala
 Zizur Zendeako Udala
 Cortesko Udala
 Eguesibarreko Udala
 Erroibarko Udala
 Esteribarko Udala
 Etxarri Aranazko Udala
 Etxauriko Udala
 Fontellasko Udala
 Funesko Udala
 Galar Zendeako Udala
 Garinoaingo Udala
 Goizuetako Udala
 Uharteko Udala
 Imarkoaingo Kontzejua
 Inbuluzketako Kontzejua
 Iturmendiko Udala
 Itzaltzuko Udala

Txulapaingo Udala
 Lanako Udala
 Larraungo Udala
 Leitzako Udala
 Leozko Udala
 Lesakako Udala
 Mendabiako Udala
 Miranda de Argako Udala
 Murillo el Cuendeko Udala
 Noaingo Udala (Elortzibar)
 Olaztiko Udala
 Olorizko Udala
 Orkoiengo Udala
 Oteitzako Udala
 Pitillasko Udala
 Garesko Udala
 Puiuko Udala
 Ribaforadako Udala
 Erromantzatuko Udala
 Zangozako Udala
 Untzueko Udala
 Urdiaingo Udala
 Utergako Udala
 Vianako Udala
 Atarrabiako Udala
 Deierriko Udala
 Ziordiko Udala
 Zuñigako Udala

Udalen batasunak:

Los Arcosko eskualdeko oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitatea.

Antzin, Murieta eta Abaigarko udalen batasuna.

Arantza eta Igantziko udalak.

Ezkaibarte-Olaibarko udalen batasuna.

Izaba eta Uztarrozko udalen batasuna.

Iturmendi eta Bakaikuko udalen batasuna.

Zubieta eta Iturengo udalen batasuna.

2. 2007an eta 2008an

Auzitegietan aurkeztu diren errekerimenduak eta/edo aurkaratzeak: 34.

Hona errekerimendu horiek, materien arabera banatuak:

Euskal Autonomia Erkidegoko bandera erakustea edo Nafarroako Foru Komunitateko bandera ez jartzea: 7

- Toki entitateen ondasunak: 1
- Obra-kontratazioa: 2
- Toki entitateetako langileak: 3
- Hirigintza: 5
- Beste batzuk: 1

Aurkaratzeak:

Euskal Autonomia Erkidegoko bandera erakustea edo Nafarroako Foru Komunitateko bandera ez jartzea: 5

- Obra-kontratazioa: 2
- Toki entitateetako langileak: 2
- Dirulaguntzak: 1
- Hirigintza: 3
- Beste batzuk: 2

Toki entitateak:

Altsasuko Udala

Arasko Udala

Arangurengo Udala

Arroizko Udala

Azagrako Udala

Barillasko Udala

Baztango Udala

Berako Udala

Berriobeitiko Udala

Cabanillasko Udala

Cascanteko Udala

Cintruénigoko Udala

Corellako Udala

Fontellasko Udala

Fustiñanako Udala

Legardako Udala

Leringo Udala

Mendigorriko Udala

Murillo el Cuendeko Udala

Garesko Udala

Atarrabiako Udala

3. Irizpideak.

Errekerimendu espedientei hasiera emateko arrazoi ezberdinak daude, nahiz eta ohikoenak ondokoak diren: osoko bilkuretako aktak berrikustea eta idazkari eta kontu-hartzaileen jarduketak. Halaber, aintzat hartzen dira zinegotziak edo herri-

tarrek jarritako salaketak edo prentsak jasotako berriak; horiek berresten dira aldez aurretik toki entitateari berari informazioa eskatuz.

Aurkaratze gehienen aurretik, errekerimenduak egin ohi zaizkie kasuan kasuko entitateei. Aurrekoa gorabehera, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko Foru Legearen 341 b) eta 343. artikulua aplikatuz, batzuetan, egokiera eta prozedura irizpideak kontuan harturik, aurkaratze zuzenak aurkezten dira, aintzat hartuta administrazio honek duen ahalmena –aipaturiko lege horri jarraikiz–.

4. Giza baliabideak eta baliabide materialak.

Ez dago errekerimendu eta aurkaratzeen izapide administratiboak egiteko zeregin hutsarekin esleitutako giza baliabide edo baliabide materialik, loturarik ez duenik Administrazioarekiko Auzien

Jurisdikzioan aurkezten diren aurkaratzeen inguruko zereginarekin.

Aurrekoa gorabehera, adierazi behar dut normalean departamentuko Idazkaritza Teknikoa arduratzen dela errekerimenduen izapide juridikoak eta administratiboak egiteaz.

5. Koordinazio tresnak.

Departamentua errekerimenduak eta aurkaratzeak aurkeztera eramaten duten auziak departamentuari dagozkion alorretakoak dira. Hala ez denean, alorrean eskumena duen departamentuari eskatzen zaio informazioa.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean

Toki Administrazioako kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, 11/2004 Foru Legearen eraginetik kanpo geratu diren idazkari eta kontu-hartzaile plazen egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du 11/2004 Foru Legearen eraginetik kanpo geratu diren idazkari eta kontu-hartzaile plazen egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 9ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuen egoerari buruz. Hona hemen Toki Administrazio kontseilariak emandako erantzuna:

1. 11/2004 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriak baimendutako salbuespeneko prozedurak ukitu ez dituen idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuetatik, zenbat zeuden hutsik 2006ko abenduaren 31n? Zenbat 2007ko abenduaren 31n? Zer asmo dago 2008rako? Zer udali edo eta toki entitateari eragiten diete? Zer arrazoi dago lanpostu horiek hutsik egoteko?

2006ko abenduaren 31n dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, 11/2004 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriak ukitu ez dituenak, eta 2007ko lehen hiruhilekoan egin beharreko lehiaketan sar daitezkeenak:			
Zk.	TOKI ENTITATEA	LANPOSTUA	HUTSIK EGOTEAREN ARRAZOIA
1.	Arakil	Idazkaria	Erretiroa
2.	Arroitz	Idazkaria	Erretiroa
3.	Barañain	Idazkaria	Erretiroa
4.	Cabanillas	Idazkaria	Erretiroa
5.	Murchante	Idazkaria	Erretiroa
6.	Erriberri	Idazkaria	Erretiroa
7.	Kodesko Mankomunitatea	Idazkaria	Plantilla organikoan sortu da
8.	Jurramendiko Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
9.	Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
10.	Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
11.	Zangozako eskualdeko Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
12.	Izarbeibarko Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
13.	Berriobeiti	Kontu-hartzailea (B)	Plantilla organikoan sortu da
14.	Fustiñana	Kontu-hartzailea (B)	Plantilla organikoan sortu da
15.	Orkoien	Kontu-hartzailea (B)	Plantilla organikoan sortu da

2007ko abenduaren 31n dauden idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak, 11/2004 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriak ukitu ez dituenak, eta 2008ko lehen hiruhilekoan egin beharreko lehiaketan sar daitezkeenak:			
Horiek aurreko taulan adierazi dira.			

2008ko abenduaren 31rako aurreikuspenak, 2009ko lehen hiruhilekoan egin beharreko lehiaketan sar daitezkeenak:			
Zk.	TOKI ENTITATEA	LANPOSTUA	HUTSIK EGOTEAREN ARRAZOIA
1.	Arakilgo Udala	Idazkaria	Erretiroa
2.	Arroitz	Idazkaria	Erretiroa
3.	Barañain	Idazkaria	Erretiroa
4.	Cabanillas	Idazkaria	Erretiroa
5.	Murchante	Idazkaria	Erretiroa
6.	Erriberri	Idazkaria	Erretiroa
7.	Lerin	Idazkaria	Erretiroa
8.	Etxalar	Idazkaria	Erretiroa
9.	Caparroso	Idazkaria	Erretiroa
10.	Kodesko Mankomunitatea	Idazkaria	Plantilla organikoan sortu da
11.	Jurramendiko Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
12.	Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
13.	Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
14.	Zangozako eskualdeko Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
15.	Izarbeibarko Mankomunitatea	Kontu-hartzailea (A)	Plantilla organikoan sortu da
16.	Berriobeiti	Kontu-hartzailea (B)	Plantilla organikoan sortu da
17.	Fustiñana	Kontu-hartzailea (B)	Plantilla organikoan sortu da
18.	Orkoien	Kontu-hartzailea (B)	Plantilla organikoan sortu da

Lerin, Etxalar eta Caparrosoko lanpostuak egun hutsik daude, horien titularrak 2008an zehar erretiratu ondoren; beraz, hutsik egonen dira 2008ko abenduaren 31n.

Kontuan izan behar da 25.000 biztanletik gorako udalerriek, bai eta mankomunitate eta batasun tradizionalak ere, aukera dutela idazkari eta kontu-hartzaile lanpostu hutsak merezimendu lehiaketa orokorraren bidez betetzeko –hori arautua dago Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean–, edo aukera dutela, halaber, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileriaren sarrera-erregelamenduaren bidez egiteko (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko legearen 246. eta 252.4. artikulua). Hor-taz, nahiz eta lanpostu hutsen zerrendan sartu diren, kontuan izan behar da aipaturiko toki entitate horiek lanpostu horiek bete ditzaketela merezimendu lehiaketa orokorra ez den bestelako prozedura baten bidez.

2. Lanpostu horiek hutsik dauden udaletan, nola betetzen dira idazkaritza eta kontu-hartzailetzako eginkizunak?

Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak hutsik dauden udaletan, horien eginkizunak bete dira

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko legearen 235.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; hau da, lanpostu horietarako gaitutako pertsonak kontratatu dira aldi baterako. Pertsona horiek, betiere, funtzionarioen estatutuaren pean egonen dira, haien kontratazioa zilegi egiten duen egoerak irauten duen bitartean.

3. 2005., 2006., 2007. eta 2008. urteetan lanpostuak betetzeko deialdietan, zer udal edo/eta toki entitate eta zer lanpostu sartu dira? Ez baldin badira lanpostu huts guztiak sartu, zergatik ez dira sartu? Zer datatan geratu ziren hutsik lanpostuak? Zer datatan sartu dira deialdietan?

Galderaren lehen atalari dagokionez, kontuan izan behar da 11/2004 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ezartzen den aparteko prozedurak ukitzen dituela 2005. eta 2006. urteetako lanpostu hutsak; beraz, Toki Administrazioari kontseilariak ekainaren 13an emandako 163/2005 Foru Agindua aipatu beharra dago. Horren bidez behin betikoz onesten da, lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorretan sartzeko, toki entitateetako idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostu hutsen zerrenda (2005eko uztailaren 1eko 78. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

2005eko eta 2006ko lanpostu hutsak, aparteko prozedurak ukitzen dituenak					
	Idazkaritzak		Kontu-hartzailetza (B)		Kontu-hartzailetza (A)
1	Altsasu	1	Ablitas	1	Lizarra
2	Andosilla	2	Andosilla	2	Atarrabia
3	Arbizu	3	Aranguren	3	Zizur Nagusia
4	Los Arcos	4	Arguedas		
5	Artaxoa	5	Azagra		
6	Azagra	6	Baztan		
7	Buñuel	7	Caparroso		
8	Burlata	8	Cascante		
9	Cadreita	9	Castejón		
10	Zarrakaztelu	10	Cintruéñigo		
11	Cascante	11	Corella		
12	Castejón	12	Cortes		
13	Zizur	13	Etxarri Aranatz		
14	Corella	14	Egues		
15	Cortes	15	Noain		
16	Lizarra	16	Uharte		
17	Fitero	17	Leitza		
18	Fontellas	18	Lesaka		
19	Fustiñana	19	Lodosa		
20	Galar	20	Mendabia		
21	Uharte	21	Murchante		
22	Lakuntza	22	Erriberri		
23	Larraun	23	Azkoien		
24	Leitza	24	Ribaforada		
25	Lesaka	25	San Adrián		
26	Martzilla	26	Zangoza		
27	Mendabia	27	Valtierra		
28	Mendigorría	28	Bera		
29	Olazti	29	Viana		
30	Oteitza	30	Villafranca		
31	Azkoien	31	Berriozar		
32	San Adrián	32	Irurtzun		
33	Zangoza	33	Beriain		

2005eko eta 2006ko lanpostu hutsak, aparteko prozedurak ukitzen dituenak				
	Idazkaritzak		Kontu-hartzaitza (B)	Kontu-hartzaitza (A)
34	Bera	34	Gares, Artazu eta Girgillaoko udalen batasuna	
35	Viana	35	Malerrekako Mankomunitatea	
36	Villatuerta	36	Los Arcosko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	
37	Atarrabia			
38	Orontze	5	Azagra	
39	Berriobeiti	6	Baztan	
40	Berriozar	7	Caparroso	
41	Lekunberri	8	Cascante	
42	Abartzuza eta Lezaungo udalen batasuna	9	Castejón	
43	Allin eta Metautengo udalen batasuna	10	Cintruénigo	
44	Antzin, Murieta eta Abaigarko udalen batasuna	11	Corella	
45	Araitz eta Beteluko udalen batasuna	12	Cortes	
46	Arantza eta Igantziko udalen batasuna	13	Etxarri Aranatz	
47	Ezkarotze, Jaurrieta eta Orontzeko udalen batasuna	14	Egues	
48	Goizueta eta Aranoko udalen batasuna	15	Noain	
49	Iguzkitza, Lukin, Villamayor de Monjardin eta Barbaringo udalen batasuna	16	Uharte	
50	Izaba eta Uztarrozkoko udalen batasuna	17	Leitza	
51	Ituren eta Zubietako udalen batasuna	18	Lesaka	
52	Iturmendi eta Bakaikuko udalen batasuna	19	Lodosa	
53	Lana, Zuñiga, Mues, Piedramillera eta Sorladako udalen batasuna	20	Mendabia	
54	San Martin Unx eta Uxueko udalen batasuna	21	Murchante	
55	Ultzama eta Odietako udalen batasuna	22	Erriberri	
56	Urdazubi eta Zugarramurdiko udalen batasuna	23	Azkoien	
57	Sakanako Mankomunitatea	24	Ribaforada	
58	Ezkabarte eta Olaibarko Udaletako Langileen Mankomunitatea	25	San Adrián	

2007ko eta 2008ko lanpostu hutsei dagokiez, ez da deialdirik egin, eta hori ondoko arrazoiengatik gertatu da:

- Cabanillasko Udalak lanpostu hutsen deklarazioarekin batera aurkeztu zituen merezimendu partikularrak judizialki aurkaratzeko beharra. Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak, 2008ko martxoaren 6an emandako 58/2008 Epaiaren bidez, Foru Komunitateko administrazioak aurkeztutako helegitea baietsi eta aurkaratutako akordioa deuseza zela xedatu zuen.

- Fustiñanako Udalaren jarduerarik eza judizialki aurkaratzeko beharra; hori gertatu da Nafarroa-

ko Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean horretarako aurreikuspenik ez dagoelako. Lege horretan, urriaren 29ko 11/2004 Foru Legean ez bezala, ez dago lanpostu hutsen deklaraziorik. Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak 2008ko apirilaren 8an emandako 89/2008 Epaiak administrazioarekiko auzi errekurtoa baietsi eta xedatu zuen derrigorrezkoa zela Toki Administrazioari Departamentuari hutsik zeuden lanpostuen berri ematea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 30ean

Toki Administrazioari kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	